

# Berdintasun Politika

ITELAZPIren iritziz, bere gizarte erantzukizunaren esparruan, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna oinarrizko printzipioa da, funtsezkoa eta ezin uko ezinezkoa, eta Zuzendaritzak gidatuko du, baita hori lortzeko helburuak eta estrategiak ere.

Gure erakundearen baitan erabateko berdintasunaren helburua gauzatzea lortzeko, Zuzendaritzak bere egiten ditu gure emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Politika osatzen duten printzipio hauek:

- Aukera Berdintasuna kudeatzea, Enpresako emakume eta gizon guztiengan eragin zuzena zein zeharkakoa duten jarduera guztietan integratuz.
- Gure Berdintasun Planetik ondorioztatzen diren helburuak eta ekintzak definitzeko eta martxan jartzeko behar diren baliabideak ematea.
- Enpresako pertsona guztiari sentsibilizazioa eta prestakuntza ematea emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunari dagokionez.
- Enpresan egunero lan egiten dugun pertsonen lan, segurtasun eta osasun baldintzak babesten eta hobetzen direla bermatzea, baita ere familiako bizitza eta laneko bizitza uztartzen lagunduko duten neurriak hartzea.
- Komunikazioan eta dokumentazioan hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez sexista egiten dela zaintzea, barrukoan zein kanpokoan.
- Kanpo jardueretan genero ikuspegia sustatzea, gure hornitzaileei, bezeroei eta gainerako interes taldeei begira, baita eskainitako zerbitzuetan ere, eta gure eragin eremuan berdintasunaren kudeaketaren integrazioa biderkatzeko efektua lortzen saiatzea.
- Berdintasun Politika legez ditugun betebeharrak betetzetik harantzago garatzea.

2023ko iraila  
**Xabier Zubiaur Agirre**  
Zuzendari nagusia